

# ARTE GARAIKIDEAREN, ARKITEKTURAREN ETA ESPAZIOAREN ARTEKO TOPAKETAK.

ELKARRIZKETAK ETA AUKERAK

# ENCUENTROS ENTRE EL ARTE CONTEMPORÁNEO, LA ARQUITECTURA Y EL ESPACIO.

DIÁLOGOS Y POSIBILIDADES

2024.01.16 – 2024.03.19

Asteartero, 2024.01.30 eta 2024.02.27 izan ezik

Todos los martes, excepto 30.01.2024 y 27.02.2024

18:00-20:00

## **ULA IRURETAGAOIENA & MIREN VADILLO**

urtarrilak 16 enero

## **VIRGINIA LÓPEZ DE MATURANA**

urtarrilak 23 enero

## **ION ARREGI & MARTÍN FERRÁN. HAIEK**

otsailak 6 febrero

## **GARAZI ANSA**

otsailak 13 febrero

## **ONINTZA ETXEBESTE**

otsailak 20 febrero

## **ISKANDAR REMENTERIA**

martxoak 5 marzo

## **ESTÍBALIZ SÁDABA**

martxoak 12 marzo

## **ULA IRURETAGAOIENA & MIREN VADILLO**

martxoak 19 marzo

Prezioa: Artium Museoaren Adiskideak: doan. Arte Ederretako eta Artearen Historiako Fakultateetako ikasleak: doan.  
Homologatutako ikasketetako ikasleak: 25 €. Gainerakoak: 60 €.  
Toki mugatua. Izen-ematea 945 20 90 20 telefonoan edo artium.eus webgunean.

Precio: Amigas y Amigos del museo y alumnado de las Facultades de Bellas Artes e Historia del Arte, gratuito.  
Alumnado de estudios homologados, 25 €. Otros: 60 €.  
Aforo limitado. Preinscripciones en el 945 20 90 20 o en artium.eus

## **ARTE GARAIKIDEAREN, ARKITEKTURAREN ETA ESPAZIOAREN ARTEKO TOPAKETAK. ELKARRIZKETAK ETA AUKERAK**

Arte garaikideak eta arkitekturak elkarrekin zer duten eta espazioaren ideia nola ulertzen eta nola laguntzen duten argitzen saiatzea proposatzen du ikastaro honek. Zoruek, hormek eta sabaia mugatzen duten edukiontzi bat baino zerbait gehiago da espazioa. Bere tenperatura, ehundura, tonalitatea, izaera, historia-geruzak, helburuak, funtzionaltasunak, politikak eta gatazkak dituen bilgarria da. Horrek guztiak asmoen eta sentsibilitateen transmisore bihurtzen du espazioa. Arkitektoa eta artista espazio baten baldintzak eta ezaugarriak irakurtzen eta hautematen trebatzen dira, eta, beren proposamenekin, entitate materialak eta sentsorialak eraikitzen dituzte. Ikastaroaren helburua da espazioan eta hura osatzen duten objektu eta materialetan inprimatuta geratzen den irakurketa hori azaleratzea.

Artelana hiru dimentsiotakoa ez izan arren, eta kontzeptu espazialean oinarrituta egon ez arren, arkitektura-espazio batean aurkezten da, hari gehituz. Artelanak birdefinitu, zehaztu, sinbolizatu, performatu eta kualifikatu egiten du, gainera, espazio hori. Horrela, hainbat espazio-kategoria bereizten dira: prozesu artistikoaren espazioa, arte-espazioa, erakusketa-espazioa, eraikin-espazioa, kale-espazioa, espazio performatikoa edota lurralde-espazioa; guztiak, ikastaro honen edukia egituratzen duten espazioak. Horien bidez, arte garaikidean oinarritutako espazioari buruzko sentsibilitateak arkitekturarekiko elkarrizketetan nola lantzen diren sakonduko da.

## **ENCUENTROS ENTRE EL ARTE CONTEMPORÁNEO, LA ARQUITECTURA Y EL ESPACIO. DIÁLOGOS Y POSIBILIDADES**

El presente curso propone adentrarse en las distintas maneras en las que el arte contemporáneo y la arquitectura se relacionan y colaboran en el entendimiento de la idea del espacio. El espacio es algo más que un contenedor limitado por suelos, paredes y techos. Es una envolvente que tiene su temperatura, textura, tonalidad, carácter, capas de historia, objetivos, funcionalidades, políticas, conflictos..., todo lo cual lo convierte en un transmisor de intenciones y sensibilidades. Tanto el arquitecto como el artista se ejercitan en leer y captar las circunstancias y cualidades de un espacio, y construyen con sus propuestas y entidades materiales y sensoriales. El curso pretende desvelar esta lectura que queda impresa en el espacio y en los objetos y materialidades que lo componen.

Aun cuando la obra artística no tenga tridimensionalidad ni bascule en conceptos espaciales, la pieza artística se presenta en un espacio de arquitectura al que se suma, y la redefine, la concreta, la simboliza, la relaciona, la performa y cualifica. Se diferencian así distintas categorías de espacios: espacio del proceso artístico, espacio-arte, espacio expositivo, espacio edificio, espacio calle, espacio performático, espacio territorio..., espacios que estructuran el contenido de este curso y en los que se ahondará en cómo se trabajan las sensibilidades sobre el espacio desde el arte contemporáneo en sus distintos diálogos con la arquitectura.

# ULA IRURETAGOIENA

Arkitekto gisa egindako ibilbide profesionalan, honako hauek uztartu ditu: unibertsitate-irakaskuntza, UPV/EHUko Proiektu arkitektonikoen irakasgaiaren irakasle gisa; nizu arkitektura- eta hirigintza-bulegoko jarduera profesionala; eta pentsamendu kritikoko proiektuetan parte hartzea euskal kulturagune eta komunikabideetan (*Argia, Gara*). Arterari eta arkitekturari buruzko argitalpen-proiektuetan parte hartu du, Kontseilu Editorialeko kide gisa (UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko *Ausart* aldizkaria eta *Aldiri Arkitektura eta Abar* Udako Euskal Unibertsitatearen argitalpen-proiektua), eta hiriari, dantzari eta hitzari buruzko pentsamendu-mintegietan parte hartu du, antolatzaile edo gonbidatu gisa (Hiria eta bestelako politikak-Tabakalera, Urbanbat, Steve Paxton-Azkunza Zentroa, Hitzaren Eskola).

# MIREN VADILLO

Miren Vadillo Artearen Historian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV/EHU). Artearen Historiako eta Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak Masterreko (UPV/EHU) irakaslea da. Haren ikerketa-ildo nagusia euskal arte garaikidea da, eta zehazkiago, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetakoa, eta arreta berezia jartzen du urte horietako arte-sorkuntzaren kudeaketa-, sustapen- eta hedapen-mekanismoetan, bai eta horien eratorbideetan ere. Hainbat ikerketa-liburu eta -artikulu argitaratu ditu, eta hainbat kongresu eta jardunalditan parte hartu du, aipatutako gai horri buruzko ekarpenekin.

Arquitecta que hibrida la docencia universitaria como profesora de la asignatura de Proyectos arquitectónicos en la UPV/EHU, el ejercicio profesional en oficina de arquitectura y urbanismo propia, nizu, y la participación en proyectos de pensamiento crítico en espacios culturales y medios de comunicación vascos (*Argia, Gara*). Ha formado parte de proyectos editoriales de arte y arquitectura como miembro del Consejo Editorial (revista *Ausart* de la Facultad de Bellas Artes UPV/EHU y *Aldiri Arkitektura eta Abar* proyecto editorial de Udako Euskal Unibertsitatea) y participado en seminarios de pensamiento en relación a la ciudad, la danza y la palabra, en calidad de organizadora o invitada (Ciudad y Otras Políticas-Tabakalera, Urbanbat, Seminario Steve Paxton-Azkunza Zentroa, Hitzaren Eskola).

Miren Vadillo es doctora en Historia del Arte por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), profesora del grado de Historia del Arte y del Máster Conservación y Exhibición de Arte Contemporáneo en la misma universidad. Su principal línea de investigación se centra en el arte contemporáneo vasco y más concretamente en las décadas de los años sesenta y setenta, con una especial atención a los mecanismos de gestión, promoción y difusión de la creación artística de esos años, así como a las derivaciones que las mismas conllevan. Ha publicado diversos libros y artículos de investigación y ha participado en varios congresos y jornadas, con aportaciones sobre el tema señalado.

**URTARRILAK 16 ENERO**  
**18:00**



## **ULA IRURETAGOIENA & MIREN VADILLO**

(Ikastaroaren koordinatzaileak | Coordinadoras del curso)

### **IKASTAROAREN AURKEZPENA ETA HELBURUAK**

Lehenengo saio honetan, hurrengo saioetan garatuko diren helburuak eta funtsezko planteamenduak aurkeztuko dira, eta espazioaren eta arte garaikidearen artean sor daitezkeen aukera eta harremanen lehen hurbilketa bat eskainiko da. Ikasturtean zehar garatuko diren eta proposatutako saioetan erantzuna izango duten zenbait zalantza planteatuko dira.

### **PRESENTACIÓN Y OBJETIVOS DEL CURSO**

En esta primera sesión se presentarán los objetivos y los planteamientos fundamentales que se desarrollarán en las siguientes sesiones, ofreciendo un primer acercamiento a las posibilidades e interrelaciones del espacio con el arte contemporáneo. Se plantearán ciertos cuestionamientos que irán desarrollándose a lo largo del curso y que tendrán respuesta en las diferentes sesiones propuestas.

# VIRGINIA LÓPEZ DE MATURANA



Virginia López de Maturana Historia Garaikidean doktorea da UPV/EHUtik (Nazioarteko Aipamena. Doktoregoko Sari berezia). UPV/EHuko irakasle agregatua da Historia Garaikideko Sailean. Gaur egun, UPV/EHuko Letren Fakultateko Praktika, Eleaniztasun eta Doktoretzetarako dekanordea da. XX. mendeko Euskadiren historian aditua. Haren *La reinvencción de una ciudad. Poder y política simbólica en Vitoria durante el franquismo, 1936-1975* (Bilbo, UPV/EHU, 2014) saiakera Euskadi Sarirako izendatu zuten. Irakasle gonbidatua izan zen Oxford Brookes University-n (Erresuma Batua). XX. mendeko euskal historiari buruzko artikulua ugari idatzi ditu. Kongresu eta mintegi askotan parte hartu du Europako eta Amerikako hainbat herrialdetan. *Sancho el Sabio* aldizkariaren idazkari akademikoa da.

Virginia López de Maturana es doctora en Historia Contemporánea por la UPV/EHU (Mención Internacional. Premio Extraordinario de Doctorado). Profesora Agregada del Departamento de Historia Contemporánea de la UPV/EHU. En la actualidad es vicedecana de Prácticas, Plurilingüismo y Lectorados de la Facultad de Letras de la UPV/EHU. Especialista en la historia de Euskadi en el siglo XX, es autora de *La reinvencción de una ciudad. Poder y política simbólica en Vitoria durante el franquismo, 1936-1975* (Bilbao, UPV/EHU, 2014), obra por la que fue nominada al Premio Euskadi de Ensayo. Fue profesora invitada en la Oxford Brookes University (Reino Unido). Ha escrito numerosos artículos sobre la historia vasca en el siglo XX. Ha intervenido en un buen número de congresos y seminarios en diversos países de Europa y América. Es secretaria académica de la revista *Sancho el Sabio*.

## **URTARRILAK 23 ENERO**

### **18:00**


### **OROIMENERAKO TOKIAK GASTEIZEN**

Denbora luzez, Historiak eta Gizarte Zientziek gertakarien analisiari eta gizarte-egiturei baino ez diete arreta jarri. Azken hamarkadotan, berriz, historiografiaren bira kulturalista deiturikoak inmaterializat jo ditzakegun elementuen azterketaren garrantzia nabarmendu du: identitateak, sinboloak, irudikapenak, erritualak, memoria-lekuak, mitoak, etab. Vitoria-Gasteizen ere nabaritzen da korronte historiografiko hori. Izan ere, gertaera historiko zehatzekin lotutako gune ugari 1980ko hamarkadan Pierre Nora historialari frantsesak «oroimenerako toki» gisa definitu zuena bihurtu dira. Hitzaldi honetan, beste askoren artean, aztertuko dugu duela gutxi Vitoria-Gasteizko historian garrantzitsuak izan diren hainbat emakumeren izenak tokiko izendegian sartu izana, Zaramagako San Frantzisko eliza Martxoaren 3arekin duen harremanean, edo izen horrekin 2022an inauguratu zen Memoriaren plaza. Era batera edo bestera, hiria memoria kolektiboan markatuta geratu diren espazioak.

### **LOS LUGARES DE MEMORIA EN VITORIA-GASTEIZ**

Durante mucho tiempo, la Historia y las Ciencias Sociales solo prestaban atención al análisis de los hechos o a las estructuras sociales. Por el contrario, en las últimas décadas el denominado giro culturalista de la historiografía ha destacado la importancia del análisis de elementos que podemos considerar inmateriales: identidades, símbolos, representaciones, rituales, lugares de memoria, mitos, etc. Vitoria-Gasteiz es una ciudad que no ha escapado a esta corriente historiográfica. Así, un buen número de espacios relacionados con hechos históricos concretos han terminado por convertirse en lo que el historiador francés Pierre Nora definió en la década de 1980 como «lugares de memoria». En esta charla analizaremos la reciente incorporación de un buen número de nombres de mujeres relevantes en la historia de Vitoria-Gasteiz al nomenclátor local, la iglesia de San Francisco de Zaramaga en su relación con el 3 de Marzo, o la propia Plaza de la Memoria inaugurada con dicha denominación en 2022. Espacios de la ciudad que han quedado marcados, de una u otra manera, en su memoria colectiva.

# ION ARREGI & MARTÍN FERRÁN. HAIEK



2005ean hasitako ibilbide artistikoak Ion Arregi artista eta Martín Ferrán arkitektoa elkartu zituen lehenik, «elminius modestus» izeneko proiektuan. Banakako ibilbide artistikoak gerora diseinuaren, arkitekturaren, altzarien eta jostailuen arloko beste lan batzuekin uztartu ziren, 2017an erakusketa-diseinuan lehen enkargua jaso arte. 2020an Haiek izeneko kooperatiba sortu zuten, lan horiei beste abiapuntu bat emanez.

La trayectoria artística iniciada en 2005 unió primero al artista Ion Arregi y al arquitecto Martín Ferrán en el proyecto denominado «elminius modestus». Sus trayectorias artísticas individuales se compaginaron más tarde con otros trabajos en el campo del diseño, la arquitectura, el mueble y el juguete, hasta recibir el primer encargo en diseño expositivo en 2017. En 2020 crean la cooperativa Haiek, dando un nuevo punto de partida a estas obras.



**OTSAILAK 6 FEBRERO**  
**18:00**

### **ESKORATZE BAT**

Prozesu artistikoan egitura akitektonikoez eskaintzen duten hausnarketa-leku bat iradokiko dute, arkitekturaren eta artearen izaera biziaz gogoeta eginez. Beren elkarlan artistikoen esperientziak izango dituzte abiapuntu.

### **ESKORATZE BAT**

Durante el proceso artístico sugerirán un lugar de reflexión que ofrecen las estructuras arquitectónicas, reflexionando sobre el carácter vivo de la arquitectura y el arte. Tendrán como punto de partida las experiencias de sus colaboraciones artísticas.

# GARAZI ANSA



Garazi Ansa (Oiartzun, 1989), Artearen historian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitateetik eta aurretik Ramon Llull unibertsitatean Comisariado de Arte de Nuevos Medios master ofiziala egina du. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Artearen Historia eta Musika departamentuko irakasle atxikia da. Bere ikerketa arloetarikoa bat komisariotzarekin eta erakusketekin lotuta dago genero ikuspuntutik, bereziki sistema hauek diskurtsoak gauzatzeko erabiltzen dituzten baliabideen azterketari arreta jarritz. Bestalde, azken urteetan Euskal Herriko 80. hamarkadako testuinguru artistikoaren azterketan jardun du genero ikuspuntutik, Bilboko Arte Ederren museoaren beka eskuratu ondoren (2020-2021).

Garazi Ansa (Oiartzun, 1989) es doctora en Historia del Arte por la Universidad del País Vasco y ha realizado con anterioridad el máster oficial Comisariado de Arte de Nuevos Medios de la Universidad Ramon Llull. Actualmente es profesora adjunta del Departamento de Historia del Arte y Música de la Universidad del País Vasco. Una de sus áreas de investigación es el relativo a los comisarios y exposiciones desde el punto de vista del género, centrándose especialmente en el análisis de los recursos que utilizan estos sistemas para elaborar sus discursos. Por otra parte, en los últimos años también se ha dedicado al estudio del contexto artístico de la década de los 80 en el País Vasco desde la perspectiva de género, para lo que obtuvo la beca del Museo de Bellas Artes de Bilbao (2020-2021).

**OTSAILAK 13 FEBRERO**  
**18:00**

**ELKARREKIN EHOTAKO ELKARRIZKETAK.**  
**MUSEOAK ZEHARKATZEN DITUZTEN GORPUTZAK**

Museo batera sartzen garenean, begiratzeko asmoz sartu ohi gara: zeintzuk izango dira aretoan ikusiko ditugun artelanak? Begiak eta begiradak dira erabateko protagonistak; horrela, askotan ahaztu egiten zaigu begiak gure gorputzaren zati txiki bat besterik ez direla, eta begirada esperimentatzeko eta ezagutzeko dugun bideetako bat baino ez dela. Proposamen honen helburua da museoko espazioekin elkarrizketan dauden begirada eta gorputzek zein jarrera duten hausnartzea, eta museoetan dugun esperientzia nola baldintzatzen duten.

**DIÁLOGOS ENTRETEJIDOS.**  
**CUERPOS QUE ATRAVIESAN LOS MUSEOS**

Cuando entramos a un museo, normalmente entramos con la intención de mirar y de observar: ¿cuáles serán las obras de arte que veremos en la sala? Los ojos y la mirada obtienen todo el protagonismo; así, muchas veces nos olvidamos de que los ojos no son más que una pequeña parte de nuestro cuerpo, y que la mirada es solo una de las vías que tenemos para experimentar y conocer. El objetivo de esta propuesta es reflexionar sobre la posición que ocupan tanto la mirada como los cuerpos en diálogo con los espacios museísticos y cómo condicionan nuestra experiencia en los museos.

# ONINTZA ETXEBESTE



Ikerketaren, irakaskuntzaren eta artearen artean, Onintza Etxebesteren ibilbidea kultura-nortasunarekin lotutako proposamenetan oinarritzen da. Baserri hedatuari buruzko doktore-tesiak euskal lurraldearen egitura tipologikoaren pentsamendu arkitektonikoa ikerketa artistikoaren eremu espekulatiboagoetara zabaltzen du. Ariketa honek inguratzen gaituen paisaia kulturala ezagutzeko, bizitzeko eta/edo hausnarketak aktibatuzko bideak eskaintzen ditu, narratiba soziokulturalen inguruan jarduteko eta esperimentatzeko ahalegin gisa. Testuinguru bakoitzak eskaintzen dituen jarduteko bideetatik eta eremu artistikoak eskaintzen dituen baliabideetatik abiatuta, gauzatutako prozesuetan diziplinak konbinatzen dira, afektuak lotzen dira eta hainbat ahots, material eta gorputz artikulatzen dira. *Meta-nortasunak. Euskal arte garaikidearen ahalmena* liburuan eta *Baserri Hedatua* tesian argitaratu ditu gogoeta horiek.

Entre la investigación, la docencia y el arte, la trayectoria de Onintza Etxebeste se basa en propuestas vinculadas a la identidad cultural. Su tesis doctoral sobre el caserío expandido abre el pensamiento arquitectónico de la estructura tipológica del territorio vasco a campos más especulativos de la investigación artística. Este ejercicio ofrece vías para recorrer, vivir y/o activar reflexiones al paisaje cultural que nos rodea, como un intento de hacer y experimentar en torno a narrativas socioculturales. Partiendo de las agencias que permite cada contexto, y de los recursos que ofrece el ámbito artístico, los procesos realizados combinan disciplinas, entrelazan afectos, y articulan diversas voces, materiales y cuerpos. Ha publicado estas reflexiones en el libro *Meta-nortasunak. Euskal arte garaikidearen ahalmena* y la tesis bajo el título *Baserri Hedatua*.

**OTSAILAK 20 FEBRERO**  
**18:00**

### **ARKITEKTURA HEDATUAREN NARRATIBAK**

Arkitekturak eraikitzen dituen paisaia eta egitura materialak begirada artistikotik azterturik sortu eta garatzen diren nortasunak eta narratibak esploratuko dira, arkitekturak irekitzen dituen espazioetan barneratuz.

### **NARRATIVAS DE ARQUITECTURA EXPANDIDA**

Se explorarán los paisajes y estructuras materiales que construye la arquitectura, analizados desde la mirada artística, así como las identidades y narrativas que se crean y desarrollan, y nos adentraremos en los espacios que abre la arquitectura.

# ISKANDAR REMENTERIA



Iskandar Rementeria (Bilbo, 1979) musikagilea eta interpretea da, Filosofian lizentziatua (UD) eta Arte Ederretan doktorea (UPV/EHU). Gaur egun, irakaslea da Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Sailean eta Ikerketa eta Sormena Artean Masterrean (UPV/EHU), eta KREAREak (Eusko Jaurlaritza) ikerketa talde bateratuaren kidea da. Bere lanean artearen ekoizpeneko eta haren jakintza espezifikokoaren transmissioko egoera zehatzetarako metodologiak zalantzan jartzen eta birdefinitzen saiatzen da. Zeregin horrek norberaren jardunari buruzko etengabeko hausnarketa eskatzen du, ekoiztuz doan kategoria edo formatuetan: «idatziak», «ikus-entzunezkoak», «komisariotzak», «irakaskuntza», etab.

Iskandar Rementeria (Bilbao, 1979) es músico compositor e intérprete, Licenciado en Filosofía (UD) y Doctor en Bellas Artes (UPV/EHU). Actualmente es docente en el Dpto. de Didáctica de la Expresión Musical y en el Máster Investigación y Creación en Arte (UPV/EHU), e integrante del Grupo de Investigación consolidado KREAREak (Gobierno Vasco). Su trabajo procura cuestionar y redefinir metodologías para situaciones concretas en la producción de arte y la transmisión de su saber específico, tarea que implica una reflexión continua sobre la práctica propia en aquellas categorías o formatos en los que va produciéndose: «escritos», «audiovisuales», «curadurías», «docencias», etc.

**MARTXOAK 5 MARZO**  
**18:00**

**PAISAIA (KUTURALA) DESNATURALIZATZEA.**  
**GOGOETA BAT EUSKAL HERRIKO ARTEA ABIAPUNTU HARTUTA**

Artium Museoaren kanpoaldean Jorge Oteizaren eskultura bat dago, 1958ko kutxa hutsak gogora ekartzen dituena. Data horretan, hain zuzen ere, Aguilera Cerní kritikariak Valentzian antolatutako Ciclo sobre Arte, Arquitectura y Urbanismo programan hitzaldi bat ematera gonbidatu zuten. Hitzaldi hori garrantzitsua izan zen artistaren ibilbidean hasieran argitaratu gabe geratu zen *Ciudad como obra de arte* testuan bildutako pentsamendu estetikoak garatzeko akuilua izan baitzen. Bertan, eskulturako bere «prozesu experimental» delakotik eratorritako jakintza hiri berriaren eraikuntzara eramane nahi zuen, eta gai horrek arkitektoekin inoiz ikusi gabeko moduan lan egitera eramango zuen artea eta arkitektura integratzeko proiektuetan. Hamarkada batzuk igaro ondoren, jarrera estetiko hori beste euskal artista garaikide batzuenarekin alderatuko dugu, gaur egun paisaia-kapitalismo gisa definienezakeenaren logika kulturalaren mende dagoen lurralde baterantz hedatuta dagoen hiria artearen jakintzaren berezitasunetik lantzeko.

**DESNATURALIZAR EL PAISAJE (CULTURAL).**  
**UNA REFLEXIÓN DESDE EL ARTE EN EL PAÍS VASCO**

En el exterior de Artium Museoa se encuentra una obra escultórica de Jorge Oteiza que remite a las cajas vacías de 1958, fecha en la que precisamente fue invitado a dar una conferencia en el Ciclo sobre Arte, Arquitectura y Urbanismo organizado por el crítico Aguilera Cerní en Valencia. Esta conferencia fue capital en la trayectoria del artista, ya que supuso el detonante para el desarrollo de un pensamiento estético condensado inicialmente en un texto no publicado de título *Ciudad como obra de arte*. En él pretendía extrapolar el saber devenido de su «propósito experimental» en escultura a la construcción de la nueva ciudad, cuestión que le llevaría a colaborar de modo inédito con arquitectos en proyectos de integración arte-arquitectura. Décadas después, consideraremos esta disposición estética en relación con la de otros artistas vascos contemporáneos a la hora de abordar, desde la especificidad del saber del arte, esta ciudad hoy extendida hacia un territorio sometido a lógica cultural de lo que podríamos definir como capitalismo paisajístico.

# ESTÍBALIZ SÁDABA



Estibaliz Sádaba Murguía artista da eta doktorea Artean eta Ikerketan. Haren lana komisariotzaren, bitartekaritzaren eta praktika artistikoaren artean garatzen da, diziplina askoren artean. Haren soinu-proiektuek, ikus-entzuzkoek eta performance-proiektuek arte garaikidearen eta feminismoaren arteko gurutzaketari buruz hausnartzen dute 90eko hamarkadaren hasieratik. Erreakzioa-Reacción (1994) kolektiboaren sortzailetako bat da.

Bakarkako erakusketak egin ditu honako espazio hauetan: BienalSur-Centro Muntref (Buenos Aires, 2023); Espacio Alexandra (Santander, 2023); Fundación BBVA (2019, Madril); MUSAC (2017, León); *Subversiones*, Albumarte Galeria (Erroma, 2021); *Desdoméstica*, BilbaoArte (Bilbo, 2020). Taldekoetan parte hartu du beste hauetan: Centro Centro (2020, Madril); *Procesi 146-144*, Espainiako Akademia (2017, 2019, Erroma); Matadero (2018, Madril); La Panera (2019, Lleida).

Estibaliz Sádaba Murguía es artista y doctora en Arte e Investigación. Su trabajo se desenvuelve de forma interdisciplinar entre el comisariado, la mediación y la práctica artística, cuyos proyectos sonoros, audiovisuales y de performance, reflexionan sobre el cruce entre arte contemporáneo y feminismo desde comienzos de los años 90. Cofundadora del colectivo Erreakzioa-Reacción (1994).

Ha participado en exposiciones individuales en espacios como: BienalSur-Centro Muntref Buenos Aires (2023), Espacio Alexandra Santander (2023), Fundación BBVA (2019, Madrid), MUSAC (2017, León), *Subversiones* (Galería Albumarte, Roma, 2021), *Desdoméstica* (BilbaoArte, Bilbao 2020) y colectivas como: Centro Centro (2020, Madrid), Exposición *Procesi 146-144* (2017, 2019), Academia de España, Roma; (Matadero, Madrid, 2018), La Panera (2019, Lleida)



**MARTXOAK 12 MARZO**  
**18:00**

### **AZPIKOZ GAIN JARRITAKO ESPAZIOAK**

Habitatzea bizitzearen, espazioa hartzearen eta han ibiltzearen sinonimoa da. Praktika artistikotik eta teorizaziotik abiatuta, Estibaliz Sádaba artistak bere azken proiektuei buruz hitz egingo digu. Proiektu horietan emakumeek espazio publikoarekin duten harremanaren zailtasun historikoari buruz hausnartzen saiatu da, bai eta landa-inguruneetan nahiz hiri-inguruneetan etxeko espazioan duten lekuari buruz ere. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran bere ibilbideari ekin zionetik, jarrera politikoa bilatu du eguneroko errealitatearen aurrean, betiere ikuspegi sortzaile batetik abiatuta. Zentzu horretan, bere praktika artistikoak beti integratu ditu teoria eta aktibismo feminista sareak eta genealogiak ezartzeko borondatearekin, horrela loturak sor daitezen eta, lana isolatuta gera ez dadin.

### **ESPACIOS SUBVERTIDOS**

Habitar es sinónimo de vivir, tomar el espacio y transitarlo. Desde la práctica artística y la teorización la artista Estibaliz Sádaba nos hablará de sus últimos proyectos en los que ha tratado de reflexionar sobre la dificultad histórica de la relación de las mujeres con el espacio público y su reclusión en el espacio doméstico, tanto en entornos rurales como urbanos. Desde que inició su carrera a comienzos de los noventa ha buscado un posicionamiento político ante la realidad cotidiana, siempre a partir de una perspectiva creativa. En ese sentido, su práctica artística siempre ha integrado la teoría y el activismo feminista con una voluntad de crear redes y establecer genealogías, de modo que genere conexiones y así la obra no quede aislada individualmente.

# ULA IRURETAGOIENA & MIREN VADILLO

**MARTXOAK 19 MARZO**  
**18:00**

## **IBILDIA ARTIUM MUSEOAREN ESPAZIO PUBLIKOAN**

Taldean ibiliko gara Artium museoaren barruko eta kanpoko espazioetan, Miren Vadillo eta Ula Iruretagoienarekin solasean. Oinez goazela, aurkituko ditugun pieza artistikoei buruzko begirada artistiko eta arkitektonikoak elkarrekin kontrastean eta elkarrizketan jarriko ditugu. Arreta berezia jarriko zaio artelanaren, hura kokatzen den lekuaren eta bi esferen arteko oihartzunen arteko irakurketa sentikorrak nabarmentzeari.

## **PASEO POR EL ESPACIO PÚBLICO DE ARTIUM MUSEOA**

Paseo colectivo por los espacios interiores y exteriores de Artium Museoa en conversación abierta con Miren Vadillo y Ula Iruretagoiena, quienes contrastarán y pondrán en diálogo las miradas artísticas y arquitectónicas sobre las distintas piezas artísticas que encontraremos en el caminar acompañado. Se pondrá intención en hacer visibles las lecturas sensibles que laten entre la obra artística, el lugar donde se ubica y los ecos entre ambas esferas.



# ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco  
Museum of Contemporary Art of the Basque Country